1. Behin-betikoak diren matrikulen datuen arabera musika eskolako errolda osatuko da, ikasle bakoitza, kasua balitz tutorea, dagozkion tasa epigrafeak eta hobariak erregistratuta. Musika eskolako Zuzendaritzak ziurtatu beharko du zerbitzu hartzaileak errolda horretan daudenak bakarrik direla.
2. Ikasturtean hileroko errezipozko kitapenak 10 izango dira, irailetik ekainera arte, biak barne. Hauek hileroko errolda fiskala osatuko dute.
3. Matrikula eskaera-orrian hileroko kuotak ordaintzeko egindako aukeraren arabera, errolda kaleratuta honela kobratuko dira errezipozko kitapenak:
 - a) Erroldaren onarpena eta ordainketa epea onartutako urteko aldizkako tributuen egutegian jarritakoa izango da.
 - b) Ordainketa banku-kontuan helbideratzea aukeratu dutenei Udal kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskapenariburuzko zerga ordenantzaren arabera kobratuko zaie.
 - c) Aurreko ataletan aipatutako epean ez ordaintzeak derrigorrezko bilketa prozedura aplikatzea ekarriko du.
4. Behin matrikula behin-betikoa izanda, abenduaren 31 arte eskatu daitezke baja, beti ere baja eskaria erregistro orokorrean aurkeztuta. Horrela egindako eskarien ondorioz baja emango zaie zerbitzu erroldan eta eskari dataren hurrengo hilabeteetik aurrera ez dute ordaindu beharko hileroko kuotarik.
5. Urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztutako bajak, ez dute ordainketetan eraginik edukiko, hau da, baja eskatu arren eta musika eskolara ez joan arren, ekainera arteko hileroko kuotak ordaindu beharko dira.
6. 6. artikuluko 8. atalean aurreikusitako matrikulen kasuan zerbitzu erroldan eta errolda fiskalean alta emango zaie matrikulatzen diren hilabetean bertan.»

**3. HIRIGINTZA ETA INGURUMEN ZERBITZUEN
TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

Zerbitzu hauei lotuta zeuden aurretiazko ordenantza biak bateratzea eta ordenantzari idazkera berria ematea onartzea:

**«HIRIGINTZA ETA INGURUMEN ZERBITZUEN
TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA****1. artikulua. — Izaera eta oinarria**

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106. artikulua emandako ahalmenak erabiltzeko eta Tokiko Ogasunen 9/2005 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoarekin bat etorrira, udal honek hirigintza eta ingurumen zerbitzuen tasa eskatuko du ordenantza fiskal honetan xedatutakoaren arabera.

2. artikulua. — Egitate ezargarria

Tasaren egitate ezargarria udalaren jarduera teknikoa eta administratiboa da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak aipatzen dituen eta udal mugartean egin beharreko eraikuntza-ekintzak eta lurzoruaren erabilera aipatutako legean eta indarrean dauden gainerako xedapenetan jasotako hirigintza, eraikuntza eta polizia buruzko arauetara egokitzen diren egiaztatzeko, baita kontrol, ondorengo egiaztapen eta ikuskaritza jarduera ere, aurretiazko jakinarazpen erregimenpean, eta, oro har, ikuskaritza, kudeaketa eta hirigintza-planeamenduarekin eta bestelako zerbitzu teknikoen aurkezpenarekin lotutakoak.

3. artikulua. — Subjektu pasiboak

1. Tasa honen subjektu pasiboak dira Zergei buruzko Bizkaiko Foru Arau Orokorren 34.3 artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak, eta entitateak, eraikuntzak edo instalazioak egiten diren edo obrak egiten diren higiezin jabeak badira, edo hala badagokio, errentari direnak, edo kasuan kasu zerbitzua eskatzen edo jardueren onura jasotzen dutenak.

2. Edozein kasutan, subjektu pasiboaren ordezkokoak izango dira obren eraikitzaileak eta kontratistak. Horregatik lizentziak edo udal jarduera eskatzean, kasuz kasu, eraikitzaileak, kontratista eta jabea nor den bere datu guztiekin identifikatuta deklaratu beharko da.

4. artikulua. — Erantzuleak

1. Subjektu pasiboaren betebeharren erantzule solidarioak izango dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorren 38.1, 39 eta 41 artikuluetan aipatzen diren pertsona fisikoak edo juridikoak.

2. Erantzule subsidiarioak izango dira sozietateen administratzaileak eta sindikoak, porroten, lehiaketen, sozietateen eta oro har erakundeen kitzatzaileak edo esku-hartzatzaileak, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 42. artikuluan xedatutakoaren arabera.

5. artikulua. — Tasaren kuota

1. Egite ezargarri bakoitzerako tasa kuota epigrafe hauetan finkatutakoa da:

Jarduera tekniko eta administratiboaren deskribapena	2021 (€)
1. Obra txikiak, kostuaren arabera	
1.1. 300 eurotik beherakoak	16,21
1.2. 300,01 euro eta 601 euro bitartekoak	32,44
1.3. 601,01 euro eta 1.502 euro bitartekoak	64,84
1.4. 1.502,01 euro eta 3.005 euro bitartekoak	152,05



Jarduera tekniko eta administratiboaren deskribapena	2021 (€)
1.5. 3.005,01 euro eta 6.010 euro bitartekoak	253,63
1.6. 6.010,01 eurotik gorakoak	304,45
2. Obra handiak, kostuaren arabera	
2.1. Lehendik dauden eraikinetako edo instalazioetako obrak, 12.020 eurotik beherako kostua daukatenak:	
2.1.1. 601 eurotik beherakoak	71,72
2.1.3. 601,01 euro eta 3.005 euro bitartekoak	280,19
2.1.4. 3.005,01 euro eta 6.010 euro bitartekoak	336,62
2.1.5. 6.010,01 euro eta 12.020 euro bitartekoak	1.016,14
2.2. Lehendik dauden eraikinetako edo instalazioetako obrak, 12.020,01 eurotik gorako kostudunak	1.513,15
2.3. Eraikin berriak	
2.3.1. Zuinketa akta	1.263,25
2.3.2. Obra lizentzia	1.973,77
3. Lur zatiketak	
3.1. Urdaibaiko Patronatura bidali barik	283,33
3.2. Urdaibaiko Patronatura bidalita	323,79
4. Lizentziaren luzapena	
4.1. Obra nagusiaren lizentziaren luzapena	170,94
4.2. Obra txikiaren lizentziaren luzapena	29,84
5. Lizentziaren titularitate aldaketa	
5.1. Obra nagusiaren lizentziaren titularitate aldaketa	170,94
5.2. Obra txikiaren lizentziaren titularitate aldaketa	29,84
6. Lizentzia eman ostean proiektua aldatzea	170,94
7. Jarduera edo berari lotutako zerbitzuak iragartzeko errotuluak edota kartelak jartzeko lizentzia	32,38
8. Hirigintzako kargak baliogabetzea	1.891,76
9. Planeamenduko tresna hauek tramitatzea, ekimen pribatuak bultzatuta	
9.1. Urbanizazio proiektua	472,92
9.2. Ekimen pribatuak bultzatutako xehetasun azterlanak	7.197,41
9.3. Ekimen pribatuak bultzatutako xehetasun azterlanen aldaketa	4.318,45
9.4. Ekimen pribatuak bultzatutako urbanizazio proiektua	7.197,41
9.5. Ekimen pribatuak bultzatutako urbanizazio proiektuen aldaketa	4.318,35
9.6. Ekimen pribatuak bultzatutako errepartzelazio proiektua	7.197,41
9.7. Ekimen pribatuak bultzatutako errepartzelazio proiektu aldaketa	4.318,45
9.8. Ekimen pribatuak bultzatutako plan berezia	7.197,41
9.9. Ekimen pribatuak bultzatutako plan bereziaren aldaketa	4.318,45
9.10. Ekimen pribatuak bultzatutako plan partziala	7.197,41
9.11. Ekimen pribatuak bultzatutako plan partzialaren aldaketa	4.318,45
9.12. Ekimen pribatuak bultzatutako plan orokorraren aldaketa	4.318,45
9.13. UJP prestatzea (urbanizatzeko jarduketara programa)	7.197,41
9.14. UJP aldatzea	4.318,45
10. Hirigintza aprobetxamenduen transferentziak	1.517,32



Jarduera tekniko eta administratiboaren deskribapena	2021 (€)
11. Hirigintzako txostenak, zedulak eta kontsultak	
11.1. Urdaibako Erreserba Biosferaren Patronatura bidali barik	110,53
11.2. Urdaibaiko Erreserba Biosferaren Patronatura bidalita	150,75
11.3. Lerrokadurak eta sestrak ipintzea	90,45
12. Neurketak eta egiaztapenak	281,37
13. Bizigarritasun edo eraikina lehenengoz hartzeko lizentzia	1.045,17
14.1. Urbanizazio berriak hartzea	1.616,88
14.2. Urbanizatzeko jarduketa-programak	567,34
14.3. Hitzarmen-sistema: hitzarmen-batzarra	567,34
15. Zabaltzeko lizentziarik ez dela behar egiaztatzen duten agiriak	25,08
16. Jabari publikoa erabiltzeko edo aprobetxamendurako lizentziak (lizentzia ondoriozko okupazio tasatik aparte)	
16.1. Herri guneak erreserbetako lizentzia	371,81
16.2. Aldi baterako pasabideak (plakak barne)	432,10
16.3. Pasabide iraunkorrak (plaka barne)	396,95
16.4. Ostalaritza establezimenduetako terrazak -mahaiak eta aulkiak	57,72
16.5. Azokatxoko postua	68,29
16.6. Beste ordenantza fiskalen baten espresuki aurreikusita ez dauden bestelako erabilera edo aprobetxamenduak	33,32
16.7. Pasabide iraunkorraren plaka berria edo aldi baterako pasabidearen plaka barri bakoitza	16,93
17. Desjabetzeak	567,34
18. Lurzoruaren udal ondareen eta orubeen erregistroaren kudeaketa:	
18.1. Orubea erregistroan sartzen denean	434,85
18.2. Orubea nahitaez saltzen denean: salmentaren esleipen balioaren %1,5	
19. Aurri espedienteak	
19.1. Jabe bat	580,73
19.2. Jabe bi eta lau bitartean	1.734,14
19.3. Bost eta bederatziz jabe bitartean	4.065,23
19.4. Hamar jabe edo gehiago	5.807,48
20. Aginduak	
20.1. Obrak egiteko agindua: Obra horri dagokion tasa %50 gehituta. Gutxieneko zenbatekoa: 820,00 euro	850,81
20.2. Obra bako egite aginduak	350,21
21. Higiezinaren egoeraren gaineko txostenak	339,84
22. Ordezko exekuzioak	
22.1. Obra eta eraispenen ordezko exekuzioa, obraren kostutik aparte	1.221,21
22.2. Segurtasun, osasun eta apaintasun publikoari dagokien agindua ez betetzean ordezko exekuzioz egindako garbiketa edo bestelakoak, egin beharrekoaren kostutik aparte	610,60
23. Hornikuntza-zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten partikular edo enpresek zorupean kableak, hodiak edo antzeko elementuak izango dituzten instalazio berriak, jabari publikoko lursail edo bideetan egin beharrekoak, egiteko lizentziak	572,64
24. Erabilera aldaketa eskariak (lokala etxebizitza izateko eta horrelakoak), obra lizentziatik aparte	400,75



Jarduera tekniko eta administratiboaren deskribapena	2021 (€)
25. Etxe babestu eta tasatuen kudeaketa (promotorearen ordezkariak egindakoa), etxeko	1.334,18
26. Baimena behar duten ekintza pribatuak	
26.1. Etxebizitza tasatuen salmentak edo baldintzak aldatzea baimentzea	33,35
26.2. Salmentarako edo eskuz aldatzeko baimena behar duten bestelakoen baimena	33,35

2. Herriko irabazi asmo gabeko elkarteek edo taldeek antolatzen dituzten ekimenen okupazioaren lizentziagatik ez da tasarik ordaindu beharko, gizarte, kultura edo kirol arloko jarduerak bultzatzeko ekimenak badira eta Bermeoko Udala ekimenen kolaboratzaile edo antolatzaile baldin bada.

6. artikulua. — *Salbuespenak eta zerga hobariak*

Tasan ez da inolako albuespenik, ezta hobaririk egingo.

7. artikulua. — *Sortzapena*

1. Tasa ordaindu beharra egitate ezargarria dakarren udal jarduera hasten denean sortuko da. Horretarako, edozelan ere, jarduera hasi egin dela ulertuko da subjektu pasiboak dagokion hirigintza lizentziaren eskaera aurkezten duen egunean edo dagokion aurretiazko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezten duenean.

2. Obrak dagokion lizentzia lortu gabe edo dagokion aurretiazko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu gabe hasi edo gauzatu badira, dena delako obra baimentzeko modukoa den ala ez erabakitzeko udal-jarduera benetan hasten denean sortuko da tasa, hauek baimentzeko edo eraisteko administrazio-espeditenteen kalte barik.

8. artikulua. — *Kudeaketa arauak*

1. Orokorrean Tributu Kudeaketa Sailak egingo du kitapena, udal organoen erabakietan oinarrituta edo espeditentea izapidetu duen sailak berri emanda, 9. artikuluan jasotako kasuetan izan ezik.

2. Hirigintza lizentzia eman edo alde aurreko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ondoren, behin behineko likidazioa egingo da, eskatzaileak adierazitako aurrekontuaren arabera. Udal administrazioak kostu erreala eta efektiboa egiaztatu ahal izango du eskatzaileak adierazitako obrak amaitu ostean, eta egiaztapen horren emaitzaren arabera, dagokion behin betiko kitapena egingo du kitapen osagarri bidez, eta, hala badagokio, behin-behinekoan ordaindutakoa egokituko du.

Horretarako, obra handietako titularrek obren kostu errearen eta efektiboaren adierazpena aurkeztu behar dute erabileraren edo bizigarritasunaren lizentziaren eskabidearekin batera.

3. Lizentziaren titularitate aldaketaren kasuan behin betiko kitapena titular berriak ordainduko du. Lizentziaren eskualdatzearekin batera hasierako proiektuaren aldaketa ere eskatzen bada, egitate ezargarri desberdinak ematen direnez, bi epigrafeak ordaindu beharko dira.

4. Tasaren zenbatekoa adierazitako moduetako edozeinetan sortu ondoren ordainduko da. Eskatzaileak uko eginez gero, eta hirigintza zerbitzu publikoa eman bada, ez da ordaindutako tasa itzuliko.

5. Jabari publikoaren erabilera edo aprobetxamendurako lizentzien epigrafeak ordaindu beharko dira, erabilera edo aprobetxamenduari dagokion tasaren kalte barik.

**9. artikulua. — Autokitapenak**

1. Tasaren ordainketa autokitapen araubidean eskatuko da eta aurreko komunikazioaren erregimenpean egongo dira hirigintzako ordenantzan zehaztutako kasu zehatz hauetan:

- a) Obraren edo eraikuntzaren aurrekontuak 18.000 euroko kopurua gainditzen ez badu, BEZa kontuan hartu gabe.
- b) Eraikinaren egitura eta fatxada ez badira aldatzen.
- c) Etxebizitzaren banaketarik ez bada aldatzen.
- d) Egurrezko egitura duten eraikinetan ez bada sukaldeetako eta komunetako zoria aldatzen.

2. 16.4, 16.5 eta 16.6 epigrafeetan agertzen diren zerbitzuak emateagatik sortzen den tasa autokitapen araubidean eskatuko da.

3. Autolikidazio kasu hauetan udal administrazioan aurkeztu beharko dute aitorpen hori, udalaren eredu ofizialean. Eredu horretan tasa hau osatzen duten elementuak eta kuota finkatzeko beharrezko eta ezinbesteko diren gainerako datuak agertuko dira. Kuota hori aitorpena aurkezten den unean ordaindu beharko da.

4. Obrak alde aurreko komunikazioaren mende badaude, eta udal zerbitzuek geroa egiaztapen edo ikuskapenak egin badizkiete, sortuko den tasa administrazioak likidatuko du, ordaindu ahal izateko.

12. artikulua

1. Udalak adierazitako epean aitorpen-likidaziorik egin ez duten zergapeko egitateak atzemango balitu, eta horietarako behar diren obra edo hirigintza-lizentziak ez badira eskuratu, interesdunei behin behineko aitorpen edo likidazioa egiteko eskatu ahal izango die 15 laneguneko epea emanda, eragindako zerga arau-hausteei eta, hala badagokio, sortzen diren zigorrei kalterik egin gabe.

2. Nolanahi ere, ofizios espedientea ireki ahal izango du udal administrazioak bere esku dagoen informazioarekin, edo udal teknikariek egindako balorazioetatik lortutakoekin, eta behin-behineko likidazioa, osagarria edo behin betikoa egingo da, dagokion behin-behineko, osagarri edo behin betiko likidazioa igorrita, ordaintzeko epeak eta jar daitezkeen errekurtsoak zeintzuk diren adierazita, aplika daitezkeen zigorrak eta arau-hausteen kalte barik.

13. artikulua. — Zerga hutsegiteak eta zehapenak

Zerga arau-hausteen eta horien kalifikazio desberdinen inguruan, baita kasuan kasuko zigorren inguruan ere, Tributuen gaineko Foru Araua eta Zergen Kudeaketa, diru-bilketeta eta zerga ikuskapenen ordenantza orokorreko arauak aplikatuko dira.»

4. ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKALA

Hobarien atala berridaztea, zerga hobari berriak onartzea eta 16.2. paragrafo berria jasotzea onartzea:

«9. artikulua

1. Aurreko artikulua araberako zerga kuotan udalak hobari hauek ezartzen ditu:
 - a) Zerga kuotaren %50eko hobaria fatxadak margotzearen, lan horiek udalerako interes edo erabilera berezikotzat jotzen direlako.

Obra lizentzia berean fatxadak margotzearekin zerikusirik ez daukaten beste lan batzuk badaude, hobariaren oinarritzat margotze lanen kostua baino ez da hartuko
 - b) Zerga kuotaren %50eko hobaria alde zaharreko Birgaitze Osoko Aldeetan egiten diren eraikinen birgaitze obretan, lan horiek udalerako interes edo erabilera berezikotzat jotzen direlako.



Hobari eskaria obraren lizentziaren eskabidearekin batera egin behar da. Bermeoko Udalak luzatutako Birgaitze Osoko Aldeko lanak direla egiaztatzeko egiaztagiria aurkeztu behar da, zuzenean hobaria behin-behineko kitapenean aplikatzeko.

- c) Zerga kuotaren %90ko hobaria, abeltzaintza arloko jarduera daukaten baserriak birgaitzeko edo instalazioetarako lanetan, obra horiek udalerako interes edo erabilera berezikotzat jotzen direlako.

Hobari hau aplikatzeko sustatzaileak derrigorrez izan beharko du bere jarduera nagusia nekazaritzakoa dela egiaztatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiko titulua. Horrez gain, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- a. Bizkaiko Foru Aldundiak emandako egiaztagiria, ustiapenen erroldan sartuta dagoela ziurtatzeko.
- b. Gizarte Segurantzaren egiaztagiria, onuraduna Nekazal Araubide Berezian (nekazal jarduera) alta emanda dagoela egiaztatzeko.
- d) Zerga honen kuotan %50aren hobaria izango dute mugitzeko %65aren ezintasuna daukaten elbarrituak heltzeko eta bertan bizitzeko baldintzak hobetzeko higiezinaren elementu pribatiboetan egindako obrek, etxebizitza egokitzeko, bertan bizi direlako normalean elbarrituak eta euren beharrianetara irisgarritasuna hobetu eta etxea egokitu beharra dagoelako.

Hobaria aplikatzeko subjektu pasiboak daukan ezintasun gradua ziurtatu egin beharko da, dagokion aginteak emandako agiri bidez.

- e) Zerga honen kuotan %30aren hobaria izango dute etxebizitzetako jabe elkarteek igogailua lehen aldiz jartzeko edo kolarrean irisgarritasuna hobetzeko eskatutako obretan, beti ere, erakinean mugitzeko %65aren ezintasuna daukan elbarrituren bat dagoenean.

Hobari hau aplikatzeko subjektu pasiboak dagokion aginteak emandako elbarrituaren ezintasun graduaren ziurtagiria eta auzokidea dela ziurtatzeko errolda agiria aurkeztu beharko ditu.

- f) Zerga kuotaren %50eko hobaria herri barruko merkataritza-lokaletan jarduera berriak irekitzeagatik egiten diren obretan, irekitako jarduera berrien establezimenduak publikoarentzat zabalik baldin badaude.

Hobaria onartzeko beharrezkoa izango da Ekonomia Jardueren gaineko Zergan altan emanda egotearen ziurtagiriaren kopia aurkeztea hobari eskariarekin batera.

- g) Zerga kuotaren %60ko hobaria eguzki-energiaren bidez beroa edo elektrizitatea sortzeko sistemak instalatzen dituzten eraikuntza, instalazio edo obretarako. Hobari hau aplikatzeko ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioan administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak jartzea.

Hobari hau bakarrik aplikatuko zaie eguzki-energia aprobetxatzeko sistemetarako erabiltzen diren diru kopuruei, baldin eta inbertsio hori egitea ez bada nahitaezkoa indarrean dagoen legediaren arabera.

- h) Zerga kuotaren %30eko hobaria izango dute gizarte-inguruabar historiko-artistiko bereziak direla- eta, edo enplegua zein ostatu igarokorra sustatu beharra dela- eta, interes berezikotzat edo udalerraren onurakotzat jotzen diren eraikuntza, instalazio edo obrek.

Frogarako datu zehatzak aurkeztu beharko ditu interesdunak eta udalaren Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio hobari eskubidearen deklarazioa egitea.

2. Aurreko ataletan agertzen diren hobari fiskalak ezin dira metatu, ezta batera aplikatu ere.

3. Aurreko ataleko hobariak zuzenean aplikatuko dira behin-behineko kitapenean, beti ere hobariaren eskaria obraren lizentziaren eskarian edo aurre-komunikazioaren eskabidean beren beregi jasotzen bada.



Behin-behineko kitapena egin aurretik, kasuan kasuko agiri guztiekin hobariak eskatzen ez badira, baina geroago hobaria aplikatzeko eskaria aurkeztu bada, obra amaitu eta gero aplikatuko da hobaria. Azken kostua aurkeztuta, zergaren behin-betiko likidazioa edo likidazio osagarria egiten denean, edo dagokion itzulketa egiten denean aplikatuko da.»

«16. artikulua

1. Lizentziaren titularrak edo aitorten erantzulea zein aurretiazko komunikazioa aurkeztu duen zergadunak erabakitzen badu baimendu diren obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez egitea, idatziz jakinarazi beharko dio udalari eta honek behin behineko likidazioa itzuliko dio, edo, bestela, osorik utzi balio barik.

2. Lizentzia bat iraungita, udalak egindako likidazioa itzuli edo baliogabetuko da, salbu eta titularrak lizentziaren berritzea eskatzen badu eta udalak baimena ematen badio.»

5. ORDENANTZA FISKALA, UDAL HILERRIAREN TASA ARAUTZEN DUENA

Oinarri ezargarriaren atala jasotzea onartzea:

«5. artikulua.— Oinarri ezargarria

Zerbitzu honen tasaren oinarri ezargarria honako hauek osatzen dute: 1) herri jabariko aprobetxamendu edo zerbitzu mota bereziak, 2) aprobetxamenduaren denborak, 3) lizentziaren edo emakidaren arabera baimendutako okupazioaren azalera, edo jadanik okupaturiko azalerak. Merkatuan izango lukeen erabilgarritasunaren balioa erreferentzia modura hartuko da.»

**6. IRABAZTEKO ASMOAGAZ HERRI ERABILERA KO LURRAK MAHAI
ETA AULKIAKAZ OKUPATZEAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO
TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

Tasaren oinarri ezargarriari, kuotari, sortzapenari eta kitapenari buruzko artikuluen testua berridaztea onartzea:

«4. artikulua.— Oinarri ezargarria

Herri jabariko erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasaren oinarri ezargarria bide publikoaren kategoriak, aprobetxamenduaren iraupenaren denborak, lizentziaren arabera baimendutako okupazioaren azalerak, edo jadanik okupaturiko azalerak osatzen dute. Aprobetxamenduaren ondorioz merkatuan izango lukeen erabilgarritasunaren balioa erreferentzia modura hartuko da.»

5. artikulua.— Tasa kuota

1. Tasa kuota okupaturiko azalerari bide publikoaren kategoriaren arabera finkatutako tarifa finkoari aplikatuta ematen duen emaitza izango da.

2. Ondorengo tarifa hauek ezarri dira m²-ko edo zatirako:

Guneak	2021 (€)
1. gunea. 1.1 tarifa	51,20
1. gunea. 1.2 tarifa	40,79
2. gunea. 2.1 tarifa	51,20
3. gunea. 3.1 tarifa	31,04
4. gunea. 4.1 tarifa	31,04
4. gunea. 4.2 tarifa	26,91
4. gunea. 4.3 tarifa	24,28
4. gunea. 4.4 tarifa	16,76



Tasaren tarifa hauek Ostalaritzaren terraza eta mahaiak instalatzeko udal ordenantzako guneen sailkapena kontuan izanda finkatu dira. Gune hauen sailkapena ordenantza honen eranskinean zehazten da.

3. Tasa kuotaren emaitza kalkulatzean begiratokiko elementu guztiak kontuan hartuko dira. Upel eta bankuen okupazioari dagokionez, onartutako lizentzian jasotako azaleraren datua oinarri modura hartuko da. Baimendu gabeko aprobetxamendu kasuetan, unitate bakoitzeko elementu hauen gutxiengoko okupazio azalera m² batekoa izango da.

4. Ezin izango da tasa kuota murriztu, alta eta baja kasuetarako hainbanaketa kasuetan izan ezik.

6. artikulua. — Sortzapena

1. Bide publikoaren aprobetxamendu berrien lizentziak direnean, lizentzia eskatzen den momentuan sortuko tasa.

2. Behin baimendutako eta luzatutako aprobetxamenduak badira, eta tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea eragiten duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuko da. Kasu hauetan zergaldia urte naturala izango da, baldin eta erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu bereziaren baja espresa eskatzen ez bada.

3. Aprobetxamenduak lizentzia barik egin direla edo lizentziarekin bat ez datozela egiaztatzen bada, dagokion espediente zabalitzen den egunean sortuko tasa.

7. artikulua. — Kitapena

1. Kitapen zuzenez kitatuko da tarifetan ezarritako zenbatekoa hileko hainbanatuta, lizentziaren hilabetea barne. Kitapen zuzenez kitatuko da tarifetan ezarritako zenbatekoa hileko hainbanatuta, egiaztapenaren hilabetea barne.

4. Epe laburrerako edo aldi jakin baterako lizentzien kasuan alta eta baja hilabeteak kontuan izanda eta hauek barne hainbanatuko da urteko kuota. Gutxiengoa hilabetea izango da.

5. Baja espresuki eskatu beharko da eta urteko kuota hileko hainbanatuko da eskariko hilabetea barne.

6. Titularitate aldaketaren kasuan titular zaharra eta berriaren artean banatuko da tasa. Titular zaharrari lizentziaren titularitate aldaketa eskari data arte edo frogatutako adierazgarriaren hilabetera arte, hori barne, kitatuko zaio tasa, eta data horretatik aurrera, titular berriari.

8. artikulua. — Kudeaketa

1. Tasaren kudeaketarako oinarria, lizentziei, baldintzei, nahiz guneei dagokienean, Ostalaritzaren terraza eta mahaiak instalatzeko udal ordenantza izango da.

2. Lizentzia eskatzean edo okupazioari buruzko edozein erreklamazio aurkeztean interesdunak berak aurkeztu beharko ditu herri jabariaren okupazioari buruzko datu guztiak, besteak beste, kokapen zehatzaren planoak, azalera eta argazkia.»

7. HERRI ERABILERAKO LURRETAN POSTU, BARRAKA, SALMENTA-POSTU, IKUSKIZUN EDO ATRAKZIOAK IPINTZEAGAITIK, KALEKO INDUSTRIA IBILTARIENGAITIK ETA ZINEMA ERRODAJEAK EGITEAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

5.4 paragrafoa jasotzea onartzea:

«4. Herriko irabazi asmo gabeko elkarteek edo taldeek antolatzen dituzten ekimenen okupazioagatik ez da tasarik ordaindu beharko, gizarte, kultura edo kirol arloko jarduerak bultzatzeko ekimenak badira eta Bermeoko Udala ekimenen laguntzaile edo antolatzaile baldin bada.»